

## Denboraren kapsula

–Nik uste dut etorkizunean gauzak asko aldatuko direla. 2100. urtean gazteek ez dute eskolara joan beharko, dena birtualki egingo dute eta seguru nago adimen artifizialak dena egingo duela: musika sortuko du, koadroak pintatuko ditu...

–Mmm... Hori orain ere egiten du! Baina badakizu zer egingo duen? Azterketak egingo ditu! Ikasleek ez dute azterketarik egin beharko.

–Tira, tira, ez dut uste hori horrela izango denik, e?

–Autoak ez dira desagertuko, baina uste dut garraiobide guztiak elektrikoak izango direla. Toki guztietan jarri beharko dituzte entxufeak.

–Bai, baina, nahiz eta dena elektrikoa izan, kutsadura handia egongo da eta ezin izango dugu hegazkinez bidaiatu.

–Guk ez, baina aberatsek seguru baietz!

–Bai, hori ere egia da!

–Eta seguru nago gauza asko ez ditugula orain bezala egingo: adibidez, atea irekitzeko ez ditugu ukitu beharko. “Ireeeeekiiii” pentsatuko dugu eta listo! Ireki egingo dira!

–Kar-kar, zer ona! Baina, orduan, pentsamenduak kontrolatu beharko ditugu!

–Giza harremanak ere aldatu egingo dira.

–Bai, indibidualistagoak izango gara, seguru!

–Eta niri iruditzen zait sexu-harremanak ere birtualak izango direla.

–Bai? Zuk uste? A zer tristura! Nik ez nuke nahiko hori aldatzea!

–Bai, nik ere ez, baina garbi daukat horrela izango dela.

–Zer nahiko zenuke etorkizunerako?

–Niri gustatuko litzaidake aldaketa klimatikoa kontrolatuta egotea. Zuri?

–Niri ere bai, baina ez goaz bide onetik!

–Tira, hauek dira gure aurreikuspenak. 2100. urtean ikusiko dugu bideoa, seguru asmatu dugula!